

Bernardo Atxagak *Desde el otro lado* aurkeztuko du Okendo K.E.-n

- Bere azken lanaz arituko da solasean Jabier Muguruza musikari eta idazlearekin.

Bere aurreko liburuaren ostean, *Etxeak eta hilobiak* (*Casas y tumbas*, 2019), Asteasuko idazleak nobelatik erretiratzen zela iragarri zuen eta oraingoz esandakoa bete du.

Bere azken lana, *Desde el otro lado* (Alfaguara, 2022), ez da nobela bat, baizik eta bizitzaren eta heriotzaren gaineko fabula antzeko 4 narrazio. Gaztelaniaz argitaratu gabeko lau istorio dira; izan ere, 1985ean eta 1995ean euskaraz argitaratu ziren biak berridatzi egin ditu umore eta, horri esker, 2019ko Espainiako Letren Sari Nazionalak nolabaiteko distantziaz hausnartu ahal izan du giza izaeraren berezko ongiaz eta gaizkiaz.

Dos hermanos 1985ean argitaratu zen euskaraz (Bi anai, Erein) eta 1995ean gaztelaniaz (Ollero & Ramos, 1995). Edizio honetarako gaztelaniazko testua gainbegiratu eta orraztu du egileak berak.. *La muerte de Andoni a la luz del LSD* lehenengoz argitaratu da gaztelaniaz eta *Andoniren heriotza LSDaren argitan* kontakizunaren itzulpena da. *Conferencia sobre la vida y la muerte en el cementerio de Obaba-Ugarte* eta *Un crimen de película* testu ineditoak dira, liburu honetarako idatzitakoak.

Hitzordua Okendo Kultur Etxeko Areto Nagusian izango da apirilaren 25ean, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan. Gonbidapenak kultur etxean daude eskuragai.

Bernardo Atxaga

Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951) euskal narratibaren adierazle nagusitzat eta Espainiako literatur panoraman sakontasun eta originaltasun handieneko sortzailetzat jotzen da. Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen (euskara irakaslea, irratiko gidolaria, liburu-saltzailea, ekonomialaria, etab.), harik eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte. Liburuok argitaratu ditu, beste hainbaten artean: *Bi anai* (1985), *Obabakoak* (1988, Euskadi Saria, Espainiako Premio Nacional de Narrativa, IMPAC European Literary Award sarian finalista), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Soinujolearen semea* (2003, Grinzane Cavour Saria, Mondello Saria, Times Literary Supplement Translation Prize saria), *Zazpi etxe Frantzian* (2009, finalista Independent Foreign Fiction Prize (2012) eta Oxford Weidenfeld Translation Prize (2012) hautaketetan); *Nevadako egunak* (2013, Euskadi Saria) eta *Etxeak eta hilobiak* (2019)

2017an LiberPress Literatura Nazioarteko Saria eskuratu zuen, 2019an Espainiako Letren Sari Nazionalea, eta 2021ean Liber Saria, guztiak ere bere literatur lan osoagatik. Poesia egilea ere bada. Bere obra, 34 hizkuntzatan irakur daitekeena, zinemara eraman dute Montxo Armendarizek (*Obaba*, 2005), Aizpea Goenagak (*Zeru horiek*, 2006) eta Imanol Rayok (*Bi anai*, 2011). Euskaltzain oso da, eta Erlea aldizkariaren zuzendaria izan zen.

Jabier Muguruza

“Idatzi ere egiten duen musikaria naiz”, esan du inoiz Jabier Muguruzak, ziurrenik abeslari eta musikajotzaile bezala idazle baino ezagunagoa. Irunen jaio zen, 1960an, eta bost urterekin sartu zen musikaren munduan, akordeoia jotzen. Ordutik, euskarazko musika modernoaren historiaren lekuko eta protagonista izan da.

Literatur lanari dagokionez, 90. hamarkadaren hasieran “Emak bakia baita” literatur klubeko sortzaile izan zen, beste hainbat idazle eta musikarirekin batera: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Joxemari Iturralde, Maria Garikano eta Iñaki Irazu, besteak beste. Klubak Garziarena fanzinea eta liburu sorta argitaratu zituen.

Ordudanik Erein argitaletxean haur literaturako zazpi liburu publikatu ditu Muguruzak: *Sei lagun, sei sekretu* (1.994) *Gabon Guanito* (1.995) *Sebas leihotik begira* (2.001) *Zubi misteriotsuan* (2.001) *Asteburu bat tren zaharrean* (2.004) *Amapola oporretan* (2006) eta *Jon eta zaldiak* (2009); baita helduentzako beste hiru ere: *Bizitza pusketak* (1.996) *Laura kanpoan da* (1.999) eta *Hilen logika ezkutua* (2.014). Modu berean, azken urteotan artikulu andana idatzi ditu hainbat komunikabidetan.

Informazio gehiago

kultur_ekintza@donostia.eus
(943 48 38 40)